

{ analisia } Urtzi URRUTIKOETXEA

Eta azkenean, lehertu da Kanaky

Bidean, 80ko hamarkadako indarkeria eta sufrimenduari amaiera eman zion Noumeako akordioa bere aldetik zartarazi du Frantziako Gobernuak. Eta mahaia hautsita, berriz borroka itzultzeko beharra ikusi dute independentistek, hala egin ezean etxe guztia galduko dutela ohartuta.

Ia ehun hildako eragin zituen Kaledonia Berriko gatazka politiko eta armatuak 80ko hamarkadan. 1988 eta 1998ko Noumeako akordioek bakeari bide egin zioten. Independentisten eta Parisen arteko ituna zen, herri indigenaren eta potentzia kolonialaren artekoa, hala nahi bada. Estatus berezia ematen dio akordioak artxipelagoari, estatu jakobinoaren barnean kaledoniar herritartasuna sortzen du, frantsesarekin batera, baina baldintza berezietan: ordurako biztanleen erdia baino gutxiago ziren kanak indigenei eta bertan luzaroan bizi ziren kanpoko biztanleei aitortzen zaie. Hala, azken hamarkadatan bertara joan ziren frantses funtzionarioak, esaterako, prozesutik kanpo geratzen dira.

Akordioak autodeterminazioarako hiru erreferendum aurreikusten zituen. Parisek bakarrenekin aski izango zuela uste zuen, Kaledonia Berriak zalantzarik gabe Europako metropolira lotuta jarraitzea hobetsiko zuela, Pazifikoko melanesiar herrialde bihurtu beharrean.

Kaledonia Berrian izandako istiluen irudiak mundu osora zabaldu dira. Macronen Gobernuak egindako urratsen ondorio da kanak indigenen matxinada, deskolonizazioaren aitzakian, birkolonizazioari atea irekitzear baita Paris

Independentziari ezetza gailendu zitzaion 2018an, baina, baietzak %40tik gorako langa erdietsita, urduritzen hasi ziren Frantziaren aldekoak.

2020ko bigarren galdeketa, artxipelagoa erabat itxita zegoen pandemiagatik. Eraitza hobia lortu zuen independentismoak: lehen galdeketa 13 puntu eta ia 20.000 botoren alde izan zuen unionismoak. Bigarrenean, 10.000 boto baino gutxiagotatik (%6,5) galdu zuen independentismoak. Esku hartzea %85koa izan zen.

Hausnarketa

Aurrerakada independentista ez zen hutsetik sortu. FLNKS-ren baitako erakundeek hausnarketa sakona egin zuten, lehen galdeketa boikot eskeak parte hartzerako dei masibo bihurtu ziren, eta fun-

tsean kanak herri indigenak jarraituta ere independentismoaren gidari, Kaledonia Berriko gainerako biztanleetara hurbiltzeko urratsak egin zituzten. Indigenak gutxiengoan egon arren, europar jatorrikoak ez dira, gaur-gaurkoz, gehiengo; asko dira Asiatik eta Ozeaniatik iritsitakoak ere, Wallis eta Futuna Frantziaren beste koloniatik etorritako polinesiarrek tartean.

Haien alderdiarekin gobernu-akordioak egin zituzten independentistek, elkarrekiko konfiantza landu zuten, eta L'Éveil Océanien-ek (Ozeaniar Pizkundea) ez zuten independentziaren aurkako botorik eskatu erreferendumean.

2018 eta 2020ko galdeketa ostean, bi urteko epea zegoen hirugarrena egiteko. Independentistek buru-belarri ekin zioten herriz herri eta auzoz

auzo kanpaina egiteari. Ezinezkoa ematen zuenak lorgarria zirudien halako batean. Loialistek estu hartu zuten Paris, eta ustez jarrera neutrala hartu behar zuen Estatuak gero eta nabarmenago erakutsi zuen zeinen alde zegoen.

Ezin ahaztu Itsasoaz Haraindiko Lurraldeen Ministerioa trebatze kolonialeko pista dela Pariseko politikari askorentzat, metropoliko ardurei ekin aurretik: Sebastien Lecornu arduratu zen hirugarren galdeketa; zehazki, prozesua hondora eramateaz.

Ordainetan, Gobernuaren erortzean, Defentsa ministro bihurtu zen Jean Castexen. Orduetik, ez da ministro zehatzik izan kolonietarako: Elisabeth Borne lehen ministroaren ardurapean egon zen lehendabiziz gaia, eta Gerald Darmanin Barne ministroaren eginkizuna da gaur egun.

Lecornuk, bi urteko epea itxaron orde, loialistei men egin eta 2021eko abendurako deitu zuen galdeketa, aurrekoti 14 hilabetera. Independentistek gogor kritikatu zuten Parisen erabakia.

Urte eta erdian, Kaledonia Berritik kanpo eutsi zioten pandemiari; kasu bakanen batzuk isolatuta eta sendatuta, ez zegoen Covidik 2021eko abuztuan. Baina irailean gaitzak gogor astindu zuen eta artxipelago osora hedatu zen. Irailaren 10ean gertatu zen pandemiako lehen heriotza. Hil amaierarako, 114 lagunek galdu zuten bizia, eta 300 lagunek baino gehiagok hurren-

go asteetan. Uhartean erabateko itxialdia ezarri zuten. Kanak herrietan dolua nagusitu zen. Baldintza horietan, independentistek esan zuten ez zegoela galdeketa egite-rik, eta hilabete batzuetako atzerapena eskatu zuten. Parisek entzungor egin zien, ez zuen data aldatzerik onartu.

Independentistek argi esan zuten 2021eko abenduan ez zutela bozkatuko. Azken batean, herriz herri eta ahoz aho lortu zuten ordura arteko parte hartzea. Itxialdi batean eta kanak herriak doluan zeudela, ezinezkoa zen kanpainarik egiterik.

Hala, deskolonizaziorako behar omen zuen azken erreferendum hartan ez zuen parte hartu teoriar deskolonizatu behar zuen herri indigenak. Bistan da, Frantziaren alde izan zen galdeketa (%97), unionisten botoak 2020an baino sei mila boto gutxiago izan arren. Parte hartzea %43koa soilik izanda ere, Parisek ontzat eman zuen. Noumeako bake-akordioek iragarritako hiru erreferendumak egintzat jo zituen. Ordutik, koloniaren estatua berritzeko prozesua abiarazi nahi izan du, bidean bake-akordioa hondoratu arren.

Independentistek ezetz esan diote behin eta berriz Parisi bi urteotan, argi utzita 2021eko galdeketa ez zela onargarria. Baina Macronen Gobernuak entzungor egin die Kanakytik zetozen aho-tsei, eta aldebakarreko agenda inposatu du. Horretarako



Furgoneta bati su eman zioten pasa den maiatzaren 19an La Tamoan, Paita izeneko komunan.
DPA - EUROPA PRESS

urrats garrantzitsuena as-
teon izan da: dagoeneko mi-
norizatuta dagoen kanak he-
rri indigena are gutxiengo
txikiagoan utziko duen errol-
daren aldaketa, artxipela-
goan behin betiko gehiengo
unionista bermatzeko.

2019ko abuztuan Frantzia-
ren mendeko Polinesiar Oscar
Temaru buruzagi inde-
pendentista elkarrizketatu
nuen, eta orduantxe aurrera-
tu zidan: Kaledonia Berriaren
ostean, polinesiarren txanda
zeterren, oso epe laburrean.

Duela urtebete, Tahitin Go-
bernua eskuratu zuten inde-
pendentistek, eta Euskal He-
rria ondo ezagutzen duen
Moetai Brotherson dute
lehendakari ordutik.

Kaledonia Berriak ez du
soilik munduko bigarren ni-
kel ekoizpen handiena. Ezin-

besteko pieza da Frantziak
Pazifikoan jokatu nahi duen
rolean ere, munduko ordena
politikoa harantz lerrokatu
dela jakitun. Ordena horre-
tan lortu nahi duen protago-
nismorako behar du Parisek
birkolonizazioa Pazifikoan.

Txinaren beldurra

Geopolitikaren mozorroare-
kin, Europako metropoli
zaharkitu bihurtzeraino itxu-
raldatu nahi du. Horretarako,
beharrezko ditu nazioarteko
diplomazia eta independen-
tismoaren kriminalizazioa.

Auzia ez da soilik «aski
da!» esan duten kanak gazte
eta ez hain gazteen matxina-
dari etxeratze-aginduekin
edo polizia-indar gehiagore-
kin erantzutea. Mugimendua
bera gutxiestea ere bada.

Erreferendumaren sasoian
zabaldutako lehenean zurrur-
murrutik, eta egunotan berriz
ekin diote: Txinaren beldur-
ra. Bistan da Kaledonia Berri
independentea librea litzate-
keela komeni zaizkion lotura
diplomatikoak izateko, baina
FLNKS behin eta berriz esan
du trantsizio-epean ere Fran-
tziarekiko loturei luzaroan
eusteko asmoa duela, herri-
tartasunari eta bestelako gai
batzuei dagokienez.

Txina aipatzeak eskualdea
aztoratzen du, ordea. 2021eko
erreferendumaren bezpera-
tan, kolpe gogorra hartu
zuen Parisek, Australiak le-
poa emanda negoziatu eta
urpekari nuklearren erosketa
Estatu Batuekin lotu zuelako,
aurretik Frantziarekin zeu-
kan akordioaren kalterako.

Bi urtez zauria miazkatzen
egon ondoren, Australiako
Gobernu laborista berriare-
kin berriz negoziatzea eraba-
ki zuen Parisek, eta iazko
abenduan Australia-Frantzia
bide-orria aurkeztu zuten.

Funtsean, Frantziak, bere
asmo neokolonialeko, ki-
de izango du Australiako go-
bernu ustez progresista. Ko-
lonialismoa krimena izan
zela esaten dute alde batetik,
baina Txina aipatu eta ba-
tzuentzat europar kolonialis-
moak pilula irensgarria diru-
di halako batean. Baita bere
etorkizunaren jabe izan nahi
duen herri bati askatasunera-
ko eskubidea ezabatzea bada-
kar ere, duela mende laurden
lortutako bake-akordioak
zartarazita.